

# XEDAPEN OROKORRAK

## LEHENDAKARITZA

### 3091

*HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 5/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Lehendakari-tzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzera bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Testua argitaratzeko agindua eman duen organo berberak egingo du zuzenketa egiteko eskaria.

Horrelako hutsak aurkitu dira Lehendakari-tzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuan (2021eko urtarrilaren 29ko EHAA, 21. zk.). Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2021/483 (18/4) orrialdean, 5.1 artikuluan,

hau dio:

«1. – Lehendakari-tzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio, dekretu honetan zehaztutako arlo espezifikoari kalterik egin gabe, kontratazioaren arloko egiteko orokor hauek betetzea:»

Baina hau esan behar du:

«1. – Lehendakari-tzaren egitura osatzen duen idazkaritza nagusi bakoitzari dagokio, dekretu honetan zehaztutako arlo espezifikoak eragotzi gabe, honako funtzio orokor hauek betetzea:»

Euskarazko bertsioan, 2021/483 (17/7) orrialdean, 10 g) artikuluan,

hau dio:

«g) Euskadiren kanpoko ordezkarietako lankidetzan aritzea ordezkari-tza horiek ondo funtziona-tzeko behar diren ekintzetan, betiere Zuzendaritza gaitan.»

Baina hau esan behar du:

«g) Lehendakari-tzaren interesen jarraipena egitea prozedura judizialean, eta horiek defendatzen laguntzea organo eskudunaren bidez.»